**Ezagutzaren Ataria – CVN formatua**

**Azalpen-gida**

Ezagutzaren Ataritik, ikertzaile batek bere ekoizpen zientifikoa jasotzen duen curriculuma sor eta deskarga dezake, FECYTek garatutako **Currículum Vitae Normalizado (CVN)** formatuan.

Funtzionalitate hori erabiltzeko, orri pertsonal bat izan behar du, eta Atarian identifikatuta egon behar du.

Lehenengo urratsa **Identifikatu** aukera sakatzea da:




Dialneteko pasahitzik ez baduzu, Dialnet-en zure burua erregistratu behar duzu eta pasahitz bat aktibatu behar duzu. **Garrantzitsua: sartu zure helbide elektroniko korporatiboa** (horrela bakarrik aldatu ahal izango duzu zure fitxa).



Egilea aplikazioan autentifikatu eta **bere profilean sartzen denean**,




bere CVNa lortzeko, **Txostenak menua** hautatu beharko du, eta, ondoren, **OBTENER CVN** botoian klik egin:



Zein egunetan sortu zen, fitxategiaren izena, formatua eta eskatutako hizkuntza adieraziko dira:

| Egun | Izen | Formatu | Hizkuntza |
|---|---|---|---|
| moments ago | CVN_IÑAKI????????????_1699710_20250219132259965.pdf | CVN Completo | Euskara |

Dokumentua **PDF formatuko dokumentuak ikusteko edozein programarekin** bistaratu ahal izango da.




Gainera, CVN hori **FECYTen CVNko Editoreari** esporta dakioke, ikertzailearen curriculuma osatzeko: https://cvn.fecyt.es/editor/index.html?locale=eus#INDEX. Argitalpenekin batera, artikulu bakoitzaren adierazleak ere esportatzen ditu.

## Ezagutzaren Ataria –CVNko Editorerako sarbidea



## FECYT – CVNko Editorea

Editorera sartzeko**, FECYTaren orrialderako gakoak eduki** behar dira.




Behin barruan, **Erabili dagoen curriculuma (inportatu)** hautatu behar da, eta, hortik aurrera, automatikoki egingo dira eguneratzeak, "Jarduera zientifiko eta teknologikoa" atalean, batez ere, eragina izango dutenak. Batzuetan, beharrezkoa izango da kopiak kentzea.









2025eko otsailaren 24a